



|   |           |                |                |
|---|-----------|----------------|----------------|
| <b>AKTA</b><br><b>SAN PEDRO JAIK 2012</b><br><b>1. FASEA</b><br><b>4. BILERA: EKITALDI KULTURALAK</b> |           |                |                |
| DATA: 2012.03.16<br>TOKIA: Kultur Etxea   | BILERA: 4 | HASIERA: 18.30 | BUKAERA: 20.00 |

|   |
|---|
| <b>DEITUAK:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- San Pedro jaien diseinuan parte-hartu nahiko luken herritar oro.</li><li>- Herriko talde eta organismo kultural ezberdinak (konbokatoria zuzena).</li><li>- Herriko kultura sustapen talde ezberdinak: Bertso Eskola, Ttakun, Kukuka, Erketz, EPA, Semblante Andaluz,... (konbokatoria zuzena).</li></ul> |
| <b>BERTARATUAK:</b> 17 pertsona.  |

**GAI ORDENA:**

1. Aurkezpena eta ongi etorria: Parte-hartze saileko teknikari eta zinegotzia, eta Gazteria, Festak eta Kirola saileko zinegotzi eta teknikaria.
2. Diseinatutako parte-hartze prozesu osoaren aurkezpen laburra: batik bat, zein bileratan gauden, eta honen helburu nagusiak zein diren azaltzeko.
3. San Pedro jaietan 2012. urtean ekitaldi kulturalak antolatzeko dagoen aurrekontuaren inguruko berri ematea.
4. Ekitaldi kultural hauekin jaietako egitarauan bete beharreko tarteen proposamenaren aurkezpena.
5. Herriko taldeak antolatzeko prest leudeken ekintzen proposamen bilketa.
6. Proposamen bilketa. Parte-hartze sailak dinamizatu eta koordinatuko du hau.
7. Bestelako aportazioak.
8. Hurrengo bilerarako gonbita (bigarren fasea), eta amaiera.

## **BILERAREN HASIERA ETA AURKEZPENA:**

Bileraren hasiera eta aurkezpena aurrez planifikatu gisara egin dira. Jaietako aurrekontuaren inguruko datuak eta lehengo urteko jai egitarauaren nondik-norakoak aurkeztu dira lehenik. Kultur ekintzen inguruko bilera espezifikoak izanik hau, 2011ko San Pedro jaietako aurrekontu espezifikoaren inguruko datuak ere eman dira.

Azalpen guzti hauen ostean, parte-hartze prozesua martxan jarri da. Lehenik, bakoitzari bere ideiak eta proposamenak bakarka lantzeko eskatu zaio. Ostean, lau taldetxo osatu dira (gometxen dinamika zegoen aurreikusita, baina taldeak bere horretan sortu dira, eta mantendu egin dira), beranduxeago, taldetxo hauetatik ateratako ideiak, foro komunean hitz egiteko.

## **BILERATIK JASOTAKO PROPOSAMENAK:**

| <b>Proposamen zehatzak:</b>           |   |
|---------------------------------------|---|
| <b>Aurreko egunetako programazioa</b> | <p>EKAINAK 21: EPAkoek haien antzerkia egun honetan egitea proposatzen dute (Kultur Etxean).</p> <p>EKAINAK 22:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Erketz. 20.00etan Okendo plazan haien urteroko ekitaldia egitea proposatzen dute.</li><li>- Eskenatokia Artizar aldera begira jartzea posible balitz, nahiago lukete.</li></ul> <p>EKAINAK 23: SAN JOAN EGUNA.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Gainontzeko urteetako programazio berbera mantentzea aurreikusten da (dantzak, sua,...).</li><li>- Gau horretan, "Deabru beltzak" ikuskizuna egitea proposatzen da Kultura departamentutik, bitan bertan behera geratu eta gero.</li></ul> <p>EKAINAK 24: Alboka abesbatzaren kontzertua Brigidatarren komentuan?? Konfirmatzeke dago.</p> |
| <b>Ekainaren 28an</b>                 | <p>23.00: BETERANOEN DANBORRADA (Danborrada elkarteak luzatutako proposamena).</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Hasiera, geldialdiak,... erabaki gabe dituzte, baina komeni denaren arabera moldatzeko prest daude.</li><li>- Aurtengoan Okendo plazan Udaletxerantz beharrean, herrirantz, herritarrenganantz begiratuko dute.</li></ul>  |
| <b>Ekainaren 29an</b>                 | <p>22.30: BERTSO SAIOA KULTUR ETXEAN (Bertsozale elkartearen proposamena):</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Jada erdi-loturik dituzte bertsolari batzuk (Amets, Maialen eta Egaña), eta egun eta ordu honetan egitea gustatuko litzaieke.</li></ul>  |

|                        |  |
|------------------------|--|
| <b>Ekainaren 30ean</b> | <p>TTAKUN PROPOSAMENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- ORIAKO SORGIN DANTZA (arratsaldez).</li> <li>- ZIKIRO AFARIA (Okendo inguruan).</li> </ul> <p>VILLAFRANCA-KO FALCONS-AK:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Beste hainbat herritan ere banatu dute propaganda, eta Oriora ziurrenik 29an datoz.</li> <li>- Torredembarra-ko Corrafoq-ak eta Banyoles-ko dantza talde bat lotzea ere posible litzateke, lagunak baitituzte denak.</li> <li>- Horrela, proposamena jaien egitarauaren baitan, Catalunya eskainitako egun moduko bat osatzea litzateke.</li> <li>- Beste hainbat euskal dantzarekin, zikiro afariarekin,... batera, adibidez, euskal eta kataluniar kultura elkartruke egun moduko bat antolatu liteke.</li> </ul> |
| <b>Uztailaren 1ean</b> | <p>TTAKUN PROPOSAMENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sagardo dastaketa Okendo plazan. Honekin batera <b>erromeria</b> bat ere jartzea proposatzen dute, guneari ambiente apur bat ematearren.</li> <li>- EPA-koek lehengo urtean bezala, Villa Mirentxun egin dadila proposatzen dute, oso ondo joan zen eta.</li> </ul> <p>ERKETZ:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erromeria dantzatu bat arratsalde partean.</li> </ul>   |

| <b>Proposamen orokorrak:</b> |   |
|------------------------------|---|
|                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldiak (kulturalak, kasu honetan) egitarauaren baitan ez daitezela solapatu. Gutxienez publiko berberari eskainitako bi ekitaldi batera ez daitezela jarri.</li> <li>- Emakumearen Zentro Zibikoko erabiltzaileek ere, urtero bezala, haien ekintzen exhibizio bat antolatzeko prestutasuna erakutsi dute.</li> <li>- AMALUR TRIKITIXA ESKOLA: haiek egin dezaketena aurkezten dute proposamen gisara, kontutan hartua izan dadin, eta egoki ikusten den ekitaldirako, ordu tarterako,... abisatu diezaiegun. Edozer egiteko prest leudeke.</li> </ul> |